

## **BALIO PROPOSAMENA**

Gure ideia aurpegi-ezagutza duen atea da. Horren bidez, etxe-bizitzak segurtasun handiago izango dute, eta beraz, jabeak ziurtatu ditzakete lapurrik ez direla sartuko.

Konpondu nahi genituzkeen arazoak, hauek dira:

- Etxebizitzetako lapurretak
- Giltzak ahaztea, arazo bat izateri utziko lioke, eta sarragileari deitzea saihestuko genuke, horrek dakarren kostuarekin.
- Giltzak eramatea beharrezkoa izateri utzi.

Askotan gertatzen zaigu giltzak etxean ahazten zaizkigula edo galtzen ditugula. Hau koste asko suposatzen ditu, batzuetan giltzak galtzeagatik edo giltzak jarrita uzteagatik sarraila aldatu behar delako edo giltza berrien kopia egin behar dugulako. Gainera giltzak eramatea batzuetan ardura bat ere bihurtzen da, giltzak galtzea arazo larria izan daitekeelako. Etxebizitzetako lapurretak ere oso ohikoak dira, sarraila irekitzea lapurrentzako arazo bat izateari utzi diolako. Horregatik gure sistemarekin, guzti hori arazo bat izateari utziko dio, eta gure helburuen artean, etxebizitzak seguruagoak izatea ere aurkitzen da, gure sistemari esker lapurretak sahistetuko ditugulako sarraila irekitzea ia ezinezkoa izango baita.

**Zergatik erosi gure enpresaren/eta ez beste lehiakideei?** Lehenik eta behin, ez daukagu lehiakiderik, izan ere ez dago enpresarik aurpegiarekin desaktibatzen den sarraila eskaintzen duena, hau da, zerbitzu berri bat ematen dugu. Hortaz, gure ideia patentatzean, lehiakideak edukitzea saihestu dezakegu. Horren ondorioz, irabazi guztiak gure enpresara joango dira.

### **FUNTZIONAMENDUA:**

#### **1- ENPRESA**

Gure enpresaren funtzionamendua erraza, azkarra eta efizientea izango da. Norbaitek gure enpresa kontratatu nahi izatekotan, gurekin harremanetan jarriko da. Nola? Gmail, telefono edo sare sozialen bidez. Eskaera heldu eta gero, gure ekipo teknikoaren harremanetan jarri eta 3 eguneko epe batean bezeroaren etxean agertuko dira gure produktua instalatzeko. Hau da, alarma enpresa bat bezala funtzionatuko dugu.

Beste alde batetik, enpresaren bat gure sistema ezarri nahi badu, gure zerbitzua saltzeko aukera ere egongo da, hau da, gure enpresari ordaindu eta sistema ezartzeko eskubidea edukiko dute.

#### **2- PRODUKTUA**

Lehen esan bezala, saltzen ari garen produktua aurpegiarekin desaktibatzen den sarraila da, hau da, atea irekitzeko mekanismoa. Gaur egungo mugikorrek desblokeatzeko daukaten

funtzionamendua ardatz bezala hartuta, sistema ziur eta eraginkor bat sortu dugu. Une oro segurtasuna ziurtatzen dizuna, eta manipula ezina dena. Horrezkero, lapurretak ia ezinezkoak bermatzen dituenak. Atean itsatsita joango da dispositiboa, eta dispositibo honek, lehen esan bezala, zure aurpegia irakurriko du eta atea irekiko du.